



KONTSULTA, LEA-ARTIBAI LANDA GARAPENeko ALKARTEAK EGINA, TOKIKO MERKATU ETA AZOKETAKO SALTOKIAK ESLEITZEKO ARAUDIARI BURUZKOA.

507-CONS-2021

Aurkibidea:

I. SARRERA	1
II. KONSULTA	2
III. ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	2
1. Esleitzeko irizpideak.....	3
2. Irizpide sozial eta ingurumenekoak.....	4
3. Interesdunei informazioa ematea.....	4
IV. PROPOSATUTAKO ARAUAREN AZTERKETA	4
1. 1. apartatua.- Aurrekariak	4
2. 5. apartatua.- Udal-baimenak.....	5
3. 6. apartatua.- Prozedura	6
4. 7. apartatua.- Saltokiak esleitzeko irizpideak.	6

I. SARRERA

1. Azokak eta merkatuak egiteko tradizio handia dago Euskadin, eta orain, gainera, tradizio hori suspertzen ari da; izan ere, kontsumitzaileek gero eta gehiago baloratzen dituzte ekoizlearengandik zuzenean iristen zaizkien produktuak, konfiantza handiagoa ematen baitiete.

Garai honetan, COVID 19ak eragindako osasun-krisiak hurbileko kontsumoaren balioa nabarmendu du, eta babes handiagoa eman zaio tokiko merkataritzari eta ekoizpenari.

2. Euskadin, Europan eta munduko beste hainbat lekutan izan nahi den garapen motaren gaineko eskaera sozial berriak egiten ari dira, hau da: ekonomia mailako garapen jasangarria izatea, baina baita ingurumen-, gizarte- eta kultura-arlokoa ere. Era berean, gero eta eskari handiagoa dago elikadura-katea gardenagoa izan dadin, elikagaiek kalitate hobea izatea lortu ez ezik, elikagaien jatorria, eta ekoizpen-prozesuek eta eraldaketa-prozesuek gizartean eta ingurumenean duten eragina hobeto ezagutu ahal izateko. Nekazaritzako elikagaien tokiko azokek bi eskariri erantzuten diete: alde batetik, suspertzen ari diren eskaera sozialei, eta bestetik, ekoizleek merkatuekin modu ekitatiboagoan lotzeko duten beharrari.



3. Horrela, azken urteotan, nekazaritzako elikagaien ekoizpenean zirkuitu laburrak sustatzeko eta bultzatzeko joera gero eta handiagoa dagoela ikusten da. Tokiko azokak nekazaritza-produktu freskoen edo sasoiko produktuen zuzeneko salmenta eskaintzeko merkataritza-mota bat dira; izan ere, ekoizleak eta kontsumitzaileak geografikoki hurbil egoteaz gain, bien arteko artekari kopurua mugatu egiten da. Hortaz, tokiko azokak zirkuitu laburreko ekoizleak kontsumitzaileengana iristeko bide nagusietako bat dira.

4. Egoera horretan, eta merkatuen lehiari eusteko ikuspegiarekin bat eginez, aintzat hartu da Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkartearen proposamena.

II. KONTSULTA

5. 2021eko martxoaren 10ean LEAren (Lehiaren Euskal Agintaritzaren) erregistroan Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkartearen kontsulta hau jaso zen, tokiko jaietan egiten diren azoketan saltokiak esleitzeko araudiari dagokionez:

2020. urtean, lantalde bat sortu genuen alkateekin, Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkartearen barruan araudi-proposamen bat egiteko, arazoak sortu baitziren Lea-Artibaiko udalerrri batzuetan azoka bereziak egiteko parte-hartzaileen hautaketan. Proposamenaren zirriborroa egiteko, beste udalerrri batzuetan onartutako oinarriak hartu dira kontuan, bai eta Lehiaren Euskal Agintaritzak egindako txostenak ere. Lantaldean onartutako zirriborroa zuei helarazi nahi izan dizuegu, zuen iritzia jaso ahal izateko udal bakoitzean onartu aurretik.

Beraz, eskertuko genizueke honekin batera doan dokumentua aztertuko bazenute, eta zuen iritzia emango bazenigute.

III. ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

6. Hurrengo puntuetan, merkatu eta azoketako saltokiak esleitzeko kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak nabarmentzen dira, LEAk bere txostenetan egindako gomendioen arabera¹.

¹ Txostena, tokiko merkatu eta azoketan saltokiak esleitzearen gainekoa, 2018ko maiatzaren 22koa. https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/240_INF_ORME_VENTA_AMBULANTE_web_es.pdf

Txostena, kontratazio publikoan genero-klausulak aplikatzearen eta horiek lehiari duten eraginaren gainekoa, 2019ko maiatzaren 15ekoa. https://www.competencia.euskadi.eus/informacion/txostenak/eu_txostenak/z02-contprof/eu/

II. Txostena, tokiko merkatu eta azoketan saltokiak esleitzearen gainekoa, 2019ko uztailaren 24koa. https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/II%20Informe%20Oadjudicaci%C3%B3n%20puestos%20en%20ferias%20agr%C3%ADcolas%20de%20Bilbao.pdf

III. Txostena, tokiko merkatu eta azoketan saltokiak esleitzearen gainekoa (irizpide sozialak eta ingurumenekoak), 2020ko martxoaren 30ekoa.



1. Esleitzeko irizpideak

7. Saltokiak aukeratzeko prozedura otsailaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuaren, Kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa arautzen duenaren 4. artikuluan arautzen da.

1. □ Kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa gauzatzeko eta saltoki hutsak betetzeko baimena emateko prozedura udal bakoitzak zehaztuko du, betiere honako hauek errespetatuz: norgehiagoka-erregimena; eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 86. artikulua eta hurrengoek, zein Zerbitzu-jardueretarako sarbide libreari eta jarduera horiek gauzatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. Kapituluak ere jasotzen dituzten aurreikuspenak.

2. □ Prozedura publikoa izango da, eta prozedura izapidetzeko, irizpide argiak, errazak, objektiboak eta aurrez jakiteko modukoak ezarriko dira. Prozeduraren ebazpenean ezarriko dira baimena jasotzeko baldintzak, eta beharrezkoak, proportzionalak eta ez diskriminatzaileak izango dira.

8. Hala, azoketako eta merkatuetako saltokiak esleitzeko irizpideei dagokienez, LEAk aurreko txostenetan dagoeneko adierazi duenaren arabera, kontratazio publikoa arautzen duten printzipio hauek errespetatu behar dira:

- Deialdiaren oinarriek irizpide argi, erraz, objektibo eta aurreikusteko modukoak ezarri behar dituzte, bakoitzari dagokion puntuazioa adierazita.
- Saltokien aukeraketak publizitatearen, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioak errespetatu behar ditu, eta ezingo da ezarri beharrezkoak ez diren, eta neurritz kanpokoak edo diskriminatzaileak diren baldintzarik.
- Irizpide sozialak eta ingurumenekoak sar daitezke, betiere dagokion azokaren xedearekin lotuta badaude².
- Hautaketa-prozesuak ezin du nazionalitate-, egoitza- edo bizileku-arrazoiengatik diskriminatu.

https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/III-INFORME-FERIAS-LEA-AVC.pdf

² Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak berak onartzen du kontratazio publikoaren gizarte-eginkizuna sustatu behar dela hazkunde bidezkoago baten eragile gisa. Horrela, lege horrek adierazten duenaren arabera, kontratazio publiko orotan, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, zeharkako eta aginduzko eran, eta betiere kontratuaren objektuarekin zerikusia badute, sinesten baita irizpide horiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobea emango duela kontratu-prestazioan.



2. Irizpide sozial eta ingurumenekoak

9. Irizpide sozial eta ingurumenekoei dagokienez, berebiziko garrantzia du dagokion merkatu edo azokaren xedea behar bezala definitzea, lortu nahi den helburua estaltzeko hautaketa-irizpideak ezartzen laguntzeko diskurtsoa landuz.

10. Era berean, irizpide sozialak, ingurumenekoak eta, ahal den neurrian, gainerako politika publikoak sartu beharko dira; batez ere, azokaren edo merkatuaren xedearen definizio eta deskribapen teknikoan. Hala, funtsezkoa da kasu bakoitza banan bana aztertzea, eta toki-administrazio bakoitzak argi eta garbi eta zehaztasunez ezarri beharko du zer helburu lortu nahi duen antolatuko den azoka edo merkatuaren bidez, esleipen-irizpideak bat etor daitezen helburu horrekin.

3. Interesdunei informazioa ematea.

11. Udal-espazio publikoan egiten diren merkatu eta azoketan sartzeko eta horietan parte hartzeko baldintzei buruzko informazio guztia zabaltzea erraztu eta sustatu behar da. Horretarako, deialdia udalaren webgunean argitaratuko da, eta gardentasunari eta sarbide-berdintasunari buruzko arauak beteko dira.

Era berean, eskatzaile guztiek azoketan parte hartzeko eskaeren berariazko erantzuna jaso beharko lukete, baztertu izanaren arrazoiak azalduta, hala badagokio.

IV. PROPOSATUTAKO ARAUAREN AZTERKETA

12. Aplikatu beharreko araudia eta LEAk aurreko txostenetan egindako gomendioak kontuan hartuta, Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkarteak proposatutako araudiaren zirriborroari honako ohar hauek egin behar zaizkio.

1. 1. apartatua.- Aurrekariak

13. Azokaren xedea xehetasun gehiagorekin garatu behar da. Horretarako, sustatu nahi diren balio sozial eta ingurumenekoak zehaztuko dira, proposatutako esleipen-irizpideen artean irizpide sozial eta ingurumenekoak direnei estaldura emateko.

14. Alde horretatik, eta orientazio gisa, azokaren xedea definitzea gomendatzen da, sustatu nahi diren produktuak aipatuz (zirkuitu laburreko produktuak, hurbilekoak, kalitatezkoak, ekoizpen jasangarrikoak, etab.); era berean, azoka udalerrian antolatuz zer-nolako eragin sozial eta ingurumeneko lortu nahi den ere aipatuko da (dinamismo ekonomikoa, lurralde-sustraitzea, nekazaritza-ustiategiak gaztetzea, emakumeek



ustiategietan parte hartzea, artisau-lanak egiteko prozesuak, mikroenpresei laguntza ematea, ustiapenen jasangarritasuna, kutsadura murriztea, etab.).

2. 5. apartatua.- Udal-baimenak

15. 5.1 eta 5.2 apartatueta, eskatzaileek azokan parte hartzeko aurkeztu behar duten dokumentazioa jasotzen da.

Horri dagokionez, urtarrilaren 26ko 199/2010 Errege Dekretuak, Kalez kaleko salmenta edo ez-sedentarioa arautzen duenak, 5. artikuluan dioenez, interesdunek, eskabidea aurkezteko, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute soilik, non³, gutxienez, honako hauek adierazi beharko diren:

- a) Ezarritako baldintzak betetzea.
- b) Jarduera hasi ondoren, baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa edukitzea.
- c) Baldintzak betetzen jarraitzea baimenaren indarraldian.

Ondorioz, saltokien esleipendunei hautatuak izan direla jakinarazi ondoren bakarrik eskatu ahal izango zaie dokumentazioa.

16. 5.3. BESTE ERAKUNDE BATZUK izeneko apartatuan honako hau adierazten da azken-aurreko puntuan:

Erantzukizunpeko adierazpena, non araudi honetan ezarritako parte hartzeko baldintzak (eskubideak eta betebeharrak barne) eta hautaketa-irizpideak errespetatuko direla adieraziko den (4. eranskina).

³ 199/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, Kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioa arautzen duena. 5.2 artikulua:

2. Erantzukizunpeko adierazpenaren edukiak, gainera, honako hauek jasoko ditu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda egotea eta tarifa ordainduta izatea edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan alta emanda egotea.
- b) Gizarte Segurantzarekiko kotizazio-ordainketak egunean izatea.
- c) Hirugarren herrialdeetatik datozen zerbitzu-emaitzak, bizileku eta lan-baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
- d) Kalez kaleko salmenta edo ez sedentarioaren xede diren produktuak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak betetzea.

3. Prozedurak ezin izango du inola ere eskatu, parte hartzeko baldintza gisa, dagokion udalerrian bizilekua izateko betebeharra.

4. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainketan alta emanda eta egunean dagoela, edo, hala badagokio, zergapekoen erroldan dagoela egiaztatzeko, interesdunak berak aukera dezake nola egin: interesdunak berak egin dezake, edo, bestela, Administrazioari baimena eman ahal dio, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatu dezan.

5. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, ez da beharrezkoa izango erantzukizunpeko adierazpenean zehaztutako beste eskakizun batzuen frogagiriak aurkeztea, administrazio publikoek esleituta dituzten egiaztatze-ahalmenei kalterik egin gabe.



Aipatzen diren hautaketa-irizpideak 7. apartatuan (edo azken bertsioko dagokion puntuan) jasotakoak direla eranstea proposatzen da, 4. eranskina ezagutu ezean:

Erantzukizunpeko adierazpena, non araudi honetako **7. apartatuan** ezarritako parte hartzeko baldintzak (eskubideak eta betebeharrak barne) eta hautatzeko irizpideak errespetatuko direla adieraziko den.

3. 6. apartatua.- Prozedura

17. Apartatu horretan adierazten denez, udal-baimena idatziz jakinaraziko zaie interesdunei, eta bertan jaso beharko dira zer baldintza bete behar dituzten.

Alde horretatik, udalek, emandako baimenak jakinarazteaz gain, ukatutakoak ere jakinarazi beharko dituzte, baztertzeko arrazoiak eta eskatzaileek irizpide bakoitzean lortutako puntuazioa adierazita.

18. Bestalde, udalaz bestelako erakundeek antolatutako azokei dagokienez, betebeharrak hau jasotzen da proposatutako arauan:

Antolatzailea udala ez den kasuetan, hau da, beste erakunde batzuk direnean, erakunde horiek baimena lortzen dutenean eta ekimena hasi baino astebete lehenago, parte hartuko duten eragileen zerrenda bat aurkeztu beharko dute, non honako datu hauek jasoko diren: izen-abizenak, enpresaren izena (hala badagokio), salduko dituzten produktuen zerrenda, enpresaren udalerrria eta harremanetarako datuak (telefonoa eta/edo posta elektronikoa) (5. eranskina).

5. eranskinaren edukiari kalterik egin gabe (ez da azterketarako aurkeztu), saltokien esleipenen azken arduraduna udala denez, antolatzaileek, proposamenean adierazten diren datuez gain (eta aurreko apartatuan adierazitakoarekin bat eginez), akta bat helarazi beharko diote udalari, non hautaketa-prozesua xehatuko den, eta parte-hartzaile guztiek lortutako puntuazioak jasoko diren, onartuak edo baztertuak izan diren kontuan hartu gabe.

4. 7. apartatua.- Saltokiak esleitzeko irizpideak.

19. Zirriborroan proposatutako irizpideak honako hauek dira (orri-oineko oharrak dokumentu hau egitean erantsi dira):

7- Saltokiak esleitzeko irizpideak

Ekimen bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, produktu ezberdin bakoitzaren saltzaile-kopurua mugatua izango da. Antolatzaileak urtero finkatuko ditu saltzeko ez diren produktuen mota eta kopurua, edizio bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartuta.

Lanpostuak lehenesteko eta esleitzeko irizpide horiek XXXko Udalak edo beste erakunde antolatzaile batzuek erabiltzeko izango dira. Produktu-mota baterako puntuazio bera lortuz gero, saltokia zozketa bidez esleituko da:

7.1 Elikagaien saltokiak



Elikagaien salmentarako saltokien esleipenean, honako alderdi hauek balioetsiko dira, banako puntuazioarekin:

- Titulu Nagusiz Nekazari izatea (TNN)⁴: 5 puntu
- NUE/NEEN, NEEEEE/EEEEEO erroldetan alta ematea eta eguneratzea⁵: 5 puntu
- Nekazari gaztea izatea: 5 puntu. Onuradunak Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan izena emanda egon beharko du, eta 18 urte baino gehiago eta 41 baino gutxiago izan beharko ditu.
- Lehentasunezko ustiategi baten titularra izatea⁶: 5 puntu.
- Landutako salgaien kasuan, 5 puntu jabetzako landa-eremuan sortutako lehengaiak erabiltzeagatik.
- Landutako salgaien kasuan, baimendutako instalazio propioak dituzten ustiategiak izatea: 5 puntu
- Produktu ekologikoak edo Euskal Autonomia Erkidegoko marka babestu kalifikatuak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaia, Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri, ...): 5 puntu jatorri-deitura bakoitzeko.
- Mikroenpresa izatea: 5 puntu
- Ibilgailu elektrikoa edo hibridoa erabiltzea produktuak garraiatzeko: 5 puntu
- Jasangarritasuna sustatzeko eta kutsadura saihesteko, azoka egingo den puntutik produktuaren jatorriko ustiategira dauden 10 km bakoitzeko: 5 puntu gutxiago.
- Emakume baserritarra izatea: 5 puntu

⁴ 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, EAEko Lehentasunezko Nekazaritzako Ustiategiak arautzen dituen eta EAEko lurralde historikoetako eta eskualdeetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1997/07/9703853a.pdf>
2. artikulua. □ 1.1.4 apartatua. Titulu Nagusiz Nekazari izatea: nekazari profesionala, errenta osoaren % 50, gutxienez, bere ustiategian egiten duen nekazaritza-jardueratik lortzen duena, eta ustiategiarekin zuzeneko loturarik ez duten jardueretan ematen duena guztizko lan-denboraren erdia baino gutxiago dena.

⁵ NUE: Nekazaritza Ustiapenen Erregistroa.

NEEN: Nekazaritza Ekoizpenen Erregistro Nagusia, Estatu mailakoa.

REACAV (euskaraz, NEEEEE): Nekazaritzako Elikagaien Enpresa eta Establezimenduen Erregistro Autonomikoa.

RGSEAA (euskaraz, EEEEEEO): Elikadura Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorra, Estatu mailakoa.

⁶ 168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, EAEko Lehentasunezko Nekazaritzako Ustiategiak arautzen dituen eta EAEko lurralde historikoetako eta eskualdeetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1997/07/9703853a.pdf>
4. artikulua. □ – Nekazaritzako ustiategiari buruzko betekizun objektiboak.

1.– Nekazaritzako ustiategi batek **lehentasunezko** izaera izan dezan, baldintza objektibo hauek bete beharko ditu ustiategiak:

a) Gutxienez nekazaritzako lan-unitate bat okupatzeko aukera ematea.

Ustiategi bati dagozkion nekazaritzako lan-unitateak horretarako ezartzen diren irizpide teknikoetan oinarritutako modulu objektiboen arabera zehaztuko dira.

Nolanahi ere, titularraren lana nekazaritzako lan-unitate baten moduan zenbatu ahal izango da, baldin eta ordaindutako beste arduradirik ez badu, eta ustiategian soldatapeko langile finkorik ez badago.

(...)



7.2 Txosnak

Txosnak esleitzean, honako alderdi hauek balioetsiko dira, bakoitzari dagokion puntuazioarekin:

- Titulu Nagusiz Nekazari izatea (TNN): 5 puntu
- NUE/NEEN, NEEEEE/EEEEEO erroldetan alta ematea eta eguneratzea: 5 puntu
- Nekazari gaztea izatea: 5 puntu. Onuradunak Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan izena emanda egon beharko du, eta 18 urte baino gehiago eta 41 baino gutxiago izan beharko ditu.
- Lehentasunezko ustiategi baten titularra izatea 5 puntu.
- Mikroenpresa izatea: 5 puntu
- Ibilgailu elektrikoa edo hibridoa erabiltzea produktuak garraiatzeko: 5 puntu
 - Jasangarritasuna sustatzeko eta kutsadura saihesteko, azoka egingo den puntutik produktuaren jatorriko ustiategira dauden 10 km bakoitzeko: 5 puntu gutxiago.
- Haragi-produktuen fabrika propioa izatea: 5 puntu.
- Errota propioa izatea: 5 puntu.
- Upategi propioa izatea: 5 puntu.
- Baloratu beharreko beste fabrika batzuk: 5 puntu.
- Lehengaiaren ekoizlea denean eta fabrikarik ez badu, puntu bat produktu bakoitzeko, betiere enpresa fabrikatzailearekin duen kontratua aurkezten bada eta salgai jarritako produktuaren trazabilitatea frogatzen bada (eranskinean).
- Landutako salgaien kasuan, 5 puntu jabetzako landa-eremuan sortutako lehengaiak erabiltzeagatik.
- Produktu ekologikoak edo Euskal Autonomia Erkidegoko marka babestu kalifikatuak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaia, Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri, ...): 5 puntu jatorri-deitura bakoitzeko. Produktu mota bakoitzerako soilik jatorri-deitura bat onartuko da.

Eskaerak bere ekoizpeneko lehengaiekin egindako produktuak salduko ditu. Balioetsi beharreko produktuak:

- Haragi-produktuak: 3 puntu.
- Artoa: 3 puntu.
- Piper txorizeroa: 3 puntu.
- Euskal Sagardoa: 3 puntu.
- Txakolina: 3 puntu.

Produktu horiek balioetsi ahal izateko, salgaiak ekimenaren datan izan zuten trazabilitatea erakutsi beharko da.

20. Lehenik eta behin, eta lehen aipatu bezala, esleitzeko ezarritako irizpideek lotura zuzena izan behar dute kontratuaren xedearekin. Beraz, objektua gehiago xehatzea gomendatzen da, proposatutako hautaketa-irizpideekin koherentea izan dadin.



Kontratuaren xedea garatzeko, honako kontzeptu hauek aintzat hartzea gomendatzen da: ekonomia, ingurumen, gizarte eta kulturaren garapen jasangarria lantzea, eta, horrekin batera, ekoizleek eta egileek zuzeneko salmenta-zirkuitu laburra izatea, Euskadiko artisau- eta familia-ustiategiak merkaturatzeko ezinbesteko tresna gisa.

21. Bestalde, elikagaiak saltzeko postuen nahiz txosnen apartatuan lor daitekeen gehieneko puntuazioa adieraztea gomendatzen da.

22. Honako bi hautaketa-irizpide hauei dagokienez:

- NUE/NEEN, NEEEEE/EEEEEO erroldetan alta ematea eta eguneratzea: 5 puntu
- Nekazari gaztea izatea: 5 puntu. Onuradunak Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan izena emanda egon beharko du, eta 18 urte baino gehiago eta 41 baino gutxiago izan beharko ditu.

Oro har, adierazi behar da ezen, indarreko araudiaren arabera, nahitaezkoa bada errolda batean izena emanda egotea, orduan, ezin dela errolda horretako izen-ematea hautaketa-irizpide moduan erabili. Izan ere, kasu hori, sartzeko irizpide bat izango litzateke.

Alde horretatik, bi irizpide horiek nahasgarriak dira. Lehenengoak puntuazio bat ematen du erroldan izena emanda egoteagatik; bigarrenak, berriz, erroldan izena emanda egotea ezartzen du puntuazio hori lortu ahal izateko baldintza gisa.

Erroldan izena emanda egotea azokan parte hartzeko nahitaez bete beharreko baldintza bada, ezin da izan hautaketa-irizpideetako bat. Betekizun bat izango ez balitz, ezingo litzateke nahitaezko betebeharrak moduan ezarri nekazari gaztea izateko irizpidean.

23. Azkenik, honako irizpide honi dagokionez:

- Jasangarritasuna sustatzeko eta kutsadura saihesteko, azoka egingo den puntutik produktuaren jatorriko ustiategira dauden 10 km bakoitzeko: 5 puntu gutxiago.

Irizpide hori berrikustea gomendatzen da, bi alderdi hauek uztartu ahal izan daitezen: jasangarritasunaren eta kutsadura murriztearen helburuak, eta bizilekua dela eta ez diskriminatzearen printzipioa.

Adierazi behar da irizpide horren kuantifikazioak proportzionala izan behar duela irizpide guztien bidez lor daitezkeen puntu guztiei dagokienez. Proportzio hori aztertzeko, azokatik distantzia jakin batera dauden eskatzaileek lortuko luketen puntuazioa kalkulatu daiteke, adibide gisa⁷.

⁷ Esaterako, elikagaien saltokien kasuan (gehienez ere 50 puntu inguruko puntuazioa dute), azokatik 50 km-ra dagoen ustiategi batek 25 puntu lortu ahal izango litzuke gehienez ere, gainerako irizpideetan gehieneko puntuazioa lortuko balu.



Irizpide horren bidez lor daitekeen puntuazioa guztizko gehieneko puntuazioarekiko proportzionala izan dadin, honako aukera hau iradokitzen da, adibide gisa (beste aukera batzuk ere baliozkoak izan daitezke):

- Ustiategitik azokara dagoen distantziagatik kendu beharreko gehieneko puntu kopurua ezartzea.

- ONDORIOA

24. Lea-Artibai Landa Garapenerako Alkarteak ahalegin handia egin duela irizten da azoketako saltokien esleipena norgehiagoka, gardentasuna, inpartzialtasuna eta diskriminazio ezaren printzipio orokorretara egokitzeko.

Hala ere, adierazitako gomendioak ezartzea komeni dela irizten da, eta, bereziki, garapen handiena izan duen arauaren xedea definitu behar da, xede hori bat etor dadin azoketako parte-hartzaileak hautatzeko ezartzen diren irizpide sozial eta ingurumenekoekin.